BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

6057

EBAZPENA, 2011ko urriaren 3koa, Energia eta Meategien zuzendariarena; honen bidez baimena ematen da «Abadiano-Basauri 1 eta 2 linea elektrikotik Smurfit Kappa Nervion enpresaren industria-planta elikatzeko 132 kV-ko aireko linea elektrikoa (zirkuitu bikoitza)» instalatzeko, Iurretako udalerrian.

Erref: L-7.490 ASS/SM.

Esp: AT-H-2010/100.

AURREKARIAK

1.– 2010eko urriaren 19an, Iberdrola Distribución Eléctrica SAU enpresak (helbidea: Bilbao, San Adrian etorbidea, 48) administrazio-baimena, onura publikokoa dela biltzen duen deklarazioa, Ingurumen Inpaktuko deklarazioa eta egikaritzapen-proiektuaren onespena eskatu zituen Abadiano-Basauri 1 eta 2 linea elektrikotik Smurfit Kappa Nervion enpresaren industria-planta elikatzeko 132 kV-ko aireko linea elektrikoari (zirkuitu bikoitza) dagokionez, Iurretako udalerrian, horri buruzko instantzia aurkeztuta, dagokion Proiektu Teknikoarekin batera, industria-ingeniari Vanesa Rodríguez Marín andreak sinaturikoa eta Bizkaiko Industria Ingeniarien Elkargo Ofizialak bisatutakoa 2010-09-24an 4183/2010 zenbakiarekin eta Ingurumen Inpaktuko Azterlanarekin.

2.– Abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuaren (2002-12-23ko EHAA) 10. artikuluan eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren (2008-12-27ko BOE) 144. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta testu beraren Azken Xedapenen arteko Lehenengoan, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legearen Erregelamenduko 17. artikuluan, Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 53. artikuluan, eta Proiektuen Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urtarrilaren 11ko (2008-01-26ko BOE) 1/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren 9. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko (1998-03-27ko BOE) 3/1998 Legean aurreikusitakoari dagokionez, Iberdrola Distribución Eléctrica SAUren eskaera hori jendaurreko informaziopean jarri zuen iragarkia argitaratu zen, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2011-02-7an, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean 2011-03-14an eta El País egunkarian 2011-03-7an.

3.– 2010eko abenduaren 9an ofizio bat igorri zen Iurretako Udalera adierazitako iragarkia bertako Ediktu Taulan erakusgai jartzeko; horretaz gain, Udalari eskatu zitzaion txosten baten bitartez adierazteko egokitzat jotzen zuten edo ez instalazioa onura publikokoa zela deklaratzea, eta hala badagokio, egokitzat jotzen zituzten baldintza teknikoak ezartzeko, baita Uraren Euskal Agentziari, Confederación Hidrográfica del Cantábrico erakundeari, ADIFi, Eusko Trenbideak enpresari eta Telefónica enpresari ere. Gainera, ingurumen-legeriaren ondorioz, dokumentazio teknikoa igorri zitzaien gai horri buruzko txostena eman zezaten.

4.– Ondoren, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Ingurumen Sailburuordetzari helarazi zitzaion sail honetan aurkezturiko dokumentazio guztia egindako informazio publikoaren eta eskatzaileak horri emandako erantzunen ondorioz, Ingurumen Inpaktuko Deklarazioa emateko, hala bazegokion betiere.

5.– Informazio publikoko aldiaren barruan, eskatu zitzaien erakundeei aurkezturiko baldintza teknikoei dagokienez, sail honek dituen berezko eskumenak tarteko, Iberdrola Distribución Eléctrica SAUk onartu egin ditu baldintza horiek. Izaskun Beascoetxea Sarrionandia andreari dagokionez, eskatzaileak kontuan hartu du, alderdien akordioaren arabera, eta espedientea aurkeztu du.

6.– 2011ko irailaren 16an Ingurumen Inpaktuko Deklarazioa eman zuen Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak.

OINARRI JURIDIKOAK

A) Espedienteak betetzen ditu Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeak, energia elektrikoko instalazioen garraioko, banaketako, merkaturatzeko eta hornidurako jarduerak eta baimentze-prozedurak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuak, Eusko Jaurlaritzak abenduaren 3an emandako 282/2002 Dekretuak, goi-tentsioko linea elektrikoetako baldintza tekniko eta segurtasun-neurriei buruzko eta horien jarraibide teknikoei buruzko otsailaren 15eko (2008-03-19ko BOE) 223/2008 Errege Dekretuak onarturiko araudiak eta bat datorren gainerako legediak agintzen dituen arauzko izapideak.

B) Sektore Elektrikoari buruzko 54/1997 Lege horren 52. artikuluak energia elektrikoa banatzeko instalazioak onura publikokoak direla deklaratzen du, instalazio horiek ezartzeko beharrezkoak diren ondasun eta eskubideen nahitaezko desjabetzeari eta bide-zortasuna ezarri eta gauzatzeari begira. Aitorpen horrek ondasun eta eskubideak okupatu beharra dakar berekin, eta okupazio urgentea eragiten du Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikulua aintzat hartuta.

Energia eta Meategien zuzendariak, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Egitura Organikoa eta Funtzionala ezartzen duen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuan (2009-09-24ko EHAA) esleitu zaizkion eskumenei jarraiki, honako hau

EBATZI DUT:

Baimena ematea Iberdrola Distribución Eléctrica SAUri eta onartzea Abadiano-Basauri 1 eta 2 linea elektrikotik Smurfit Kappa Nervion enpresaren industria-planta elikatzeko linea elektrikoaren (zirkuitu bikoitza) egikaritzapen proiektua, Iurretako Udalerriak, honako ezaugarri nagusi hauek dituelarik:

Aireko tartea.

132 kV-ko tentsio nominaleko aireko linea, zirkuitu bikoitzekoa, trifasikoa, 1430 metroko luzerarekin, 281,1 mm^2-ko sekzioko (Al-Atz) HAWK motako eroale aktiboekin, lurrekoak, 16-SA1A-7 (Al) motakoak, 47,8 mm^2-koak eta zuntz optikokoak, OPGW-16-80 (Al-Atz) motakoak, 110,6 mm^2-koak, txokera jasandako tentsiorako 65º kV-ko isolamenduarekin.

Hasiera: egungo Abadiano-Basauri linearen 39. euskarriaren inguruan.

Amaiera: Smurfit Kappa Nervion enpresaren 132 kV-ko Azpiestazio berria.

Baimentzen den instalazioa onura publikokoa dela deklaratzea. Azaroaren 27ko 54/1997 Legearen 54. artikuluan xedatutakoari jarraiki, deklarazio horrek eraginpeko ondasunak okupatu edo eskubideak eskuratu beharra dakar, eta horrenbestez, okupazio urgentea eragiten du, 1954ko abenduaren 16ko Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluak okupazio urgenteko

deklaraziorako xedatzen dituen ondorioak zehaztuz, lege horren 53. artikuluaren erregistro-ondorioekin.

Ebazpen hau abenduaren 3ko 282/2002 Dekretuan xedatutakoaren arabera eta honako baldintza orokor hauekin eman da:

1.– Adierazitako proiektuaren arabera egin beharko dira obrak.

2.– Proiektua abian jartzeko bi urteko epea izango da, ebazpen honetatik aurrera zenbatzen hasita.

3.– Obrak amaitzean, instalazioen titularrak Bizkaiko Lurralde Bulegoari obren bukaeraren berri emango dio, behin betiko onarpena eta martxan jartzeko akta egin ditzan.

4.– Obrak egiteko beharrezkoak diren udal– eta probintzia-eskumeneko eta bestelako baimenak edo lizentziak edozein direla ere eta horiek aparte utzi gabe ematen da ebazpen hau; izan ere, eskatzaileak nahitaez eskuratu beharko ditu baimen horiek guztiak. Era berean, hirugarrenen eskubideak kaltetu gabe emango da, jabetza-eskubidea salbu utzita.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta haren aurka Gora Jotzeko Errekurtsoa jar daiteke Industria eta Energia Sailburuordetzan, hilabeteko epearen barruan, Ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, eta hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duen 4/1999 Legean ezarritakoari jarraiki.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 3a.

Energia eta Meategien zuzendaria,
JORGE JUAN LETAMENDIA BELZUNCE.